

Hau ez da Valentzia

Patxi LARRION*

Iruñean/ ibiltzen naizenean hirekin iduria/ badinat/ nafarroako hiribura (gurea)/ %95 ez euskaraduna dela,/ iruñean/ sinesten dinat/ hirekin nabilen gaueko/ orduetan/ komeni dela/ nafarroako hiriburua (gurea)/ %95 ez euskalduntzea,/ iruñean/ hirekin/ (gurea).

Itxaro Borda *Bestaldean*.

Zenbait urte igaro dira, Itxaro Bordak olerki hori idatzi zuenetik, ez dakigu ez euskaradunen portzentaia aldatu ote den, berdin dio, aitor dezagun, Susako editorei hiria zaigu laket, alde zaharra bereziki, baina Iruñera maiz etortzearen arrazoi nagusia, zenbait idazleekin dugun harremana da, harreman hori ez da Iruñera mugatzen, baina, gehienetan hiri zaharra dugu solastoki.

Roch kafetegian egiten ohi dugu hitzordua, sorrera data esanguratsua du kafetegiak, gaur Alberto Barandiaranekin, baina, Alberto beharrean, beste sakandarraren bat izan zitekeen, Juanjo Olasagarre edota Castillo Suarez. Kafetegia utzi eta Xalbadorreko musde Xokolet eta Iñigori egin diegu bisita, dena ez da literatura gure solasaldian, edo bai? Kanean berriz, edo karririk, estratak edota street-ak Iñakiren esanetan. Auzolan zaharra dugu hurrengo geltokia, Josuri diosala, bertan, otordu bat baino gehiago eginak gara, eta gehienak, Jon Alonsoren liburuen aurkezpenen kariatara. Iruindarrarekin bazkaltzeko asmoa dugu Anttonenean, baina aurretik, bigarren zabalgunean ohiko kafetegian Taberna dugu zain. Izan ere, Mikel Taberna ez dugu Alkaiagan ezagutu, Bidasoako errepublika eta Estellerrian kokatu ohi ditu kontakizun gehienak, baina guk poeta, ipuingile, Iruñean ezagutu dugu.

Eguerdia da alde zaharrera itzuli garenerako, Zaldi Maldikora joan aurretik Abarzuzan egin dugu sartu-irtena, Martzela mandatu bat egitera joana da, hurrengo batean izan beharko, Zeferinak gaitu hartu. Inork pentsa dezake, editore baino komertzial lanetan aritu izan garela orain arte, eta ez zen guztiz erraturik ibiliko. Zaldikon egin beharrekoak eginda, kalera irten, eta Itxaroren pasarte bat gogora ekarriko dugu, *Amorezko pena baino* liburutik hartua da:

—Hila bezala naiz. Zer bait jango nuke

—Ongi da, goazen Bilbora...

—Bilbora? Orain?

—Bilbo ostatura haurra, ostatura!

* Susako editorea

Bilbao ostatuaren parean omen zegoen Iruñeko tokirik altuena, zegoen diogu, egun liburu-denda esoterikoa baitago Bilbao zegoen tokian. Plazaruntz abiatu gara, eta orain espaloitik diosala, Joakin Balentzia da, paseoan, Txantrea bidean. Bazkari legea egin behar dugu hiri ez euskaradun honetan, eta guk euskaraz jarraituren.

Iruñean
 ibiltzen naizenean hirekin iduria
 badinat
 nafarroako hiribura (gurea)
 %95 ez euskaraduna dela,
 iruñean
 sinesten dinat
 hirekin nabilen gaueko orduetan
 komeni dela
 nafarroako hiriburua (gurea)
 %95 ez euskalduntzea,
 iruñean
 hirekin
 (gurea)

Liburuak hor daude, guri hiriak harrapatu gaitu, eta Urola aldeko poetek zioten gisan, gure Venezia, Lesaka.

96

Ezin gisa horretan hitz egin, gu hiriak harrapatu gaitu.

Egun, maiz ikusten dugu Joakin Balentzia, paseatzen, bera lanak erakarri gintuen, eta oraindik ere, etorri ez, ez gara hiri, lurralde, honetatik joan.

Lekunberriko izpiritua.